BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

248. zk. | 2022, abenduak 30. Ostirala | 1. orr.


II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Ondarroako Udala

**20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak, Garbiketa Operario kategoriari dagozkionak.**

ONDARROAKO UDALA

***Iragarkia***

Alkateak, 2022ko abenduaren 22an, 2022/1422 Dekretu bidez, honako erabakia hartu du:

***Lehena***. Onartzea 20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak, garbiketa operario kategoriari dagozkionak.

***Bigarrena***. Agintzea deialdi hau arautzen duten oinarri espezifikoak eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen, eta deialdiaren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, hilabetean ebazpena argitaratu eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da ebazpena, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da.

Ondarroa, 2022ko abenduaren 22a –Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga, alkatea.


Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.




eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

**20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, GARBIKETA OPERARIO KATEGORIARI DAGOZKIONAK**

**1. – Deitutako plazak.**

Laboral izaerako, lanbide talde sailkapeneko, garbiketa operario kategoriako plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

PLAZA KOPURUA: 1
LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 1
EZAUGARRIAK:

- Lanpostua: garbiketa operarioa
- Mota: laborala
- Sailkapena: lanbide taldea (AP)
- Kodeak: 4.2.2.16
- Destino osagarria: 16
- Berariazko osagarria: 12.770,00 €
- Hizkuntza-eskakizuna: 1
- Derrigortasun datak: 2017-03-31

**2.– Parte hartzeko eskakizunak.**

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, Eskola ziurtagiria, edo titulazioa baliokidea eskatzen da.

**3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.**

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 1.go hizkuntza eskakizuna betekizun izango da. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

3.2.– Era berean, deialdi honen muina den plazari lotutako lanpostuak berariazko honako betekizun hau du esleituta:

B motako gidabaimena.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

**4.– Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

**4.1. Oposizio fasea**

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

**Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**

**4.1.1.– Lehen proba:**

Bi zati izango ditu:

**A zatia**: Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Proba teorikoa. Garbiketa operario lanpostuaren eginkizunekin eta gaitegiaren eranskinean jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu.

Galderak Ondarroako Udaleko web orriaren https://www.ondarroa.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/default.aspx estekan argitaratuko diren galdera sortatik aterako dira.

**B zatia:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Praktikoa izango da: garbiketa operario lanpostuarekin zerikusia duen(ten) proba(k) egin beharko dituzte. Epaimahaiak zehaztuko du egin beharreko proba mota.

Probaren gehienezko balioa guztira 60 puntukoa izango da (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). A zatian, erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da. Kanporatuak izango dira proba osoan (A eta B zatiak batuta) 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 7. apartatuan aipatutako lekuetan.

**4.1.2. Bigarren proba, euskara proba**: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 1go hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaientzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

**Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da** derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Ondarroako Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 1go hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko,



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun baliodunekoepea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

**4.2. Lehiaketa fasea**

**Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira** eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

**A) Esperientzia: 30 puntu gehienez**

**a.1. Esperientzia orokorra (gehienez 10 puntu):**

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

**Gehienez 10 puntu emango dira**, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, garbiketa operario plaza batean (Eskala: Administrazio Berezia. Azpieskala: Zerbitzu Bereziak), lanbide talde sailkapenarekin (AP), funtzionario gisa: lan egindako egun bakoitzeko 0,00548 puntu.



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, garbiketa operario kategorian, lanbide talde sailkapenarekin (AP), lan-kontratuko langile gisa: lan egindako egun bakoitzeko 0,00548 puntu..

**a.2. Berariazko esperientzia (gehienez 20 puntu):**

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira**,** gehienez ere **20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan, garbiketa operario plaza batean (Eskala: Administrazio Berezia. Azpieskala: Zerbitzu Bereziak), lanbide talde sailkapenarekin (AP), funtzionario gisa egindako zerbitzuengatik: lan egindako egun bakoitzeko 0,01096 puntu.

- Deialdia egin duen Administrazioan, garbiketa operario kategorian, lanbide talde sailkapenarekin (AP), lan-kontratuko langile gisa egindako zerbitzuengatik: lan egindako egun bakoitzeko 0,01096 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. Gehienez **10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administrazioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,0167 puntu, gehienez 10, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

**6. Lan-poltsa**

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina oposaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

**7. Lehentasun-klausula aplikatzea.**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, garbiketa operario kategorian emakumeen azpiordezkaritza dagoelako



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

**ERANSKINA. GAITEGIA**

**Zati orokorra**

1 Gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. Gaia. Toki-administrazioa. Kontzeptua. Barne hartzen dituen erakundeak. Udalerria: kontzeptua. Udal gobernu-organoak.
3. Gaia. Udalerria: lurraldea eta biztanleria.
4. Gaia. Tokiko sektore publikoko langileak. Eskubideak eta betebeharrak.
5.Gaia. Berdintasuna: Testuingurua eta aurrekariak. Xedea eta helburua. Printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; eta lankidetza eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak
6.Gaia. Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Enplegatu publikoen hizkuntza-gaikuntza. Euskararen erabilera normalizatzeko planak.

**Zati espezifikoa**

1 Gaia. Garbitu beharreko hiriguneak. Maiztasuna. Kaleen sailkapena.
2. Gaia. Kale-garbiketak dituen zailtasunak eta horiek ekiditeko sistemak.
3. Gaia. Kale-garbiketan eragina duten arazo partikularrak: orrien erorketa, txakur kakak.
4. Gaia. Laneko segurtasun- eta osasun-neurriak. Lan Arriskuak Prebenitzeko araudia. Oinarrizko kontzeptuen definizioa. Langileen eskubideak lan arriskuetatik babesteko. Langileen betebeharrak.
5. Gaia. Fatxadetan pintura eta kartelak kentzeko lanak.
6. Gaia. Kale-garbiketarako produktuen erabilpena.
7. Gaia. Garbiketarako makinak, tresnak eta erremintak.
8. Gaia. Udaleko langileen lan-hitzarmena.
9. Gaia. Ondarroako kaleen izendegia eta kaleen ezagutza (herriaren ezagutza)



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

**I.ERANSKINA /ANEXO I**

**ESKABIDEAK ESKATZEKO FORMULARIOA / FORMULARIO DE SOLICITUD DE INSTANCIAS**
**GARBIKETA OPERARIO KATEGORIA/CATEGORÍA OPERARIA-OPERARIO DE LIMPIEZA**

Garrantzitsua: Datuak jaso aurretik, kontsultatu jarraibide orokorrak.

Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones generales.

1 - Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

IFZ / NIF

Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social

Jaioteguna / Fecha nacimiento

Sexua / Sexo

Herritartasun nagusia / Nacionalidad principal

Jaiotze-udalerria / Localidad de nacimiento

Harremanetarako datuak / Datos de contacto

Telefono mugikorra / Teléfono móvil

Posta elektronikoa / Correo electrónico

Telefono finkoa / Teléfono fijo

Lehentasunezko hizkuntza / Idioma preferente

2 - Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar medio de notificaciones

| | | |
|---|---|---|
| Aukera ezazu zein bitarteko erabili behar den eskabide honetatik eratortzen diren jakinarazpenak helarazteko / Seleccione el medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud. | ☐ Paperean / En papel | ☐ Baliabide Elektronikoak / Medios electrónicos |

Paperean aukeratuz gero, zehaztu jakinarazpenaren posta-helbidea / En caso de seleccionar "En papel" especifique la dirección postal de notificación:

Eskaera honen ondoriozko jakinarazpenak eta/edo komunikazioak honako posta-helbide honetan egingo dira, baldin eta ematen den unean ez badago indarrean erakundearen Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan inskribatutako ahalorde-ematerik edota jakinarazpen elektronikorako harpidetza bat, udal-egoitza elektronikoaren «Nire harpidetzak» atalean jasoko dena.

Las notificaciones y/o comunicaciones derivadas de la presente solicitud se practicarán en la siguiente dirección postal siempre y cuando no exista en el momento de su emisión, vigente un otorgamiento de poder inscrito en el Registro Electrónico de Apoderamientos de la entidad y/o una suscripción a la notificación electrónica que constará en el apartado «Mis suscripciones» de la sede electrónica municipal.

Probintzia edo l. historikoa / Provincia o T. histórico

Udalerria / Municipio

8

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

248. zk. 2022, abenduak 30. Ostirala 8. orr.

ONDARROAKO UDALA

| Kalea / Calle | Posta kodea / Código postal | Blokea / Bloque |
| --- | --- | --- |
| | | |

| Atari zk. / Nº portal | Eskailera / Escalera | Solairua / Piso | Aldea / Mano | Atea / Puerta |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| | | | | |

3-Deialdiaren datuak/Datos de la convocatoria GARBIKETA OPERARIO KATEGORIA/CATEGORÍA OPERARIA/OPERARIO DE LIMPIEZA

Txanda askea

| Egokitzapena behar du? / ¿Requiere adaptación? | ☐ BAI/SI | ☐ EZ/NO |
| --- | --- | --- |

Egokitzapena behar izanez gero, adierazi jarraian eskatutako egokitzapena eta arrazoia / En el supuesto de requerir adaptación indique a continuación adaptación solicitada y motivo:

## 4 - Hizkuntz eskakizun / Perfil lingüístico

Adierazi jarraian egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Indique a continuación el perfil lingüístico acreditado

| ☐ 1. HE / PL1 | ☐ 2. HE / PL2 | ☐ 3. HE / PL3 | ☐ 4. HE / PL4 |
| --- | --- | --- | --- |

Hizkuntza-eskakizun egiaztatzeko azterketa egin behar baduzu adierazi:/ Si debe realizar el examen para acreditar el perfil lingüístico, indíquelo:

| ☐ 1. HE / PL1 | ☐ 2. HE / PL2 | ☐ 3. HE / PL3 | ☐ 4. HE / PL4 |
| --- | --- | --- | --- |

## 5 - Aurkezten dudan dokumentazioa/ Documentación que presento

| Eskatutako datuak eta dokumentuak / Datos y Documentos exigidos | | | Agiriak ez aurkezteko eskubidea /Derecho a no aportar Documentos |
| --- | --- | --- | --- |
| ☐ | Erakunde honetan emandako zerbitzuen datuen ziurtagiria. | Certificado de datos de servicios prestados en la entidad | Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud. |
| ☐ | Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuen ziurtagiria | Certificado de servicios prestados en otras administraciones públicas | Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud. |



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

| | | | |
|---|---|---|---|
| ☐ | Erantzukizunpeko adierazpen orria | Declaración responsable | Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud. |
| ☐ | Autoebaluazio-formularioa | Formulario de autoevaluación | Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud. |
| ☐ | Beste baldintza batzuk egiaztatzen dituen ziurtagiria | Certificado acreditativo de otros requisitos | Eskabidearekin batera dokumentua aurkezten dut / Aporto el documento junto con la solicitud. |
| ☐ | Desgaitasun-maila egiaztatzen duen ziurtagiria | Certificado acreditativo del grado de discapacidad | ☐ Me Opongo / Aurka nago (*) |
| ☐ | Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa<br>Titulación exigida en las bases específicas | Zehaztu titulazioa / Especificar Titulación:<br>------------------------------------------------------------------------<br>------------------------------------------------------------------------ | ☐ Me Opongo / Aurka nago (*) |
| ☐ | Hizkuntza-eskakizuna egiaztagiria | Acreditación del perfil lingüístico | ☐ Me Opongo / Aurka nago (*) |
| ☐ | Administrazio publikoko eskoletan jasotako prestakuntzaren ziurtagiria | Certificado acreditativo de formación recibida en escuelas de administración pública | ☐ Me Opongo / Aurka nago (*) |
| ☐ | Gidabaimena | Permiso de conducir | ☐ Me Opongo / Aurka nago (*) |

(*) Aurka egiteak esan nahi du Administrazioak EZ dituela elektronikoki biltzen datuak edo dokumentuak, eta interesdunak AURKEZTU BEHAR duela dokumentua eskaerarekin batera / La oposición supone que la Administración NO recabe electrónicamente los datos o documentos debiendo la persona interesada APORTAR el documento junto con la solicitud.

Nortasun Agiri Nazionalean izen-abizenen zehaztasuna egiaztatzeko datuak datuen bitartekaritza-sistemen bidez egiaztatuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9.1 artikuluaren arabera.

La verificación de datos para la comprobación de la exactitud del nombre y apellidos que conste en el Documento Nacional de Identidad, se realizará mediante los sistemas de intermediación de datos conforme al artículo 9.1 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren alde edo [organo kudeatzaileari] emandako botere publikoak erabiliz egindako eginkizun bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos a [órgano gestor], en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable

Behean izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud

10

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes)
(Eguna / Dia)

Sinadura / Firma

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna: Ondarroako Udala, Musika Plaza z/g, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. IFZ: P-4808600-C. Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa. Hartzaileak: Giza Baliabide eta Idazkaritza sailak. Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du toki-erakundearen helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero:www.ondarroa.eus

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Responsable: Ayuntamiento de Ondarroa, Musika Plaza s/n, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. CIF: P-4808600-C. Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios: Departamentos de Recursos Humanos y Secretaría. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección de la entidad local incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información:www.ondarroa.eus

| JARRAIBIDE OROKORRAK | INSTRUCCIONES GENERALES |
|---|---|
| a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.<br>b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.<br>c) Interesduna hautaketa-prozesuan onartua izateak prozesuan eskainitako plaza guztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.<br>d) Inprimakia izenpetu egin behar duzu. | a) Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.<br>b) Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.<br>c) La admisión en el proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras.<br>d) No olvide firmar el impreso. |
| INTERESATUARENTZAKO JARRAIBIDEAK | INSTRUCCIONES PARA LA PERSONA INTERESADA |
| a) Oinarri espezifikoek eskatzen dituzten baldintzak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira (emandako eskola-orduak, etab.).<br>b) Merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduan aurkeztu behar dira («Autobalorazio orria») | a) Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases específicas (clases impartidas, etc.).<br>b) Los méritos se alegan en el modelo específico («Formulario de Autovaloración»). |



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

## II. ERANSKINA /ANEXO II
## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE
## GARBIKETA OPERARIO KATEGORIA/CATEGORÍA OPERARIA-OPERARIO DE LIMPIEZA

### Norberaren datuak / Datos personales

| IFZ / NIF | Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social |
|---|---|
| | |

Eskabide honetan aipatzen den hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzen dut, eta ADIERAZTEN DUT

Solicito ser admitida al proceso selectivo a que se refiere la presente instancia y DECLARO

☐ Eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla / Que son ciertos los datos consignados en la solicitud

☐ Hautaketa-prozesuaren oinarrietan eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen ditudala. / Que reúno los requisitos y condiciones exigidos en las Bases del proceso selectivo

☐ Auto-balorazioaren datuak egiazkoak direla / Que son ciertos los datos de la Autovaloración

☐ Alegatutako merezimenduak erantsitako dokumentazioarekin egiaztatuta daudela. / Que los méritos alegados se encuentran acreditados con la documentación que se adjunta

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes)
(Eguna / Dia)

Sinadura / Firma

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna: Ondarroako Udala, Musika Plaza z/g, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. IFZ: P-4808600-C Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa. Hartzaileak: Aldizkari Ofiziala, udal-taulak eta -webguneak, gaian eskumena duten beste administrazio publiko batzuk, Epaitegiak eta Auzitegiak. Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du Ondarroako Udalaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero: www.ondarroa.eus

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Responsable: Ayuntamiento de Ondarroa, Musika Plaza s/n, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. CIF: P-4808600-C. Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios: Boletín Oficial, tablones y webs municipales, Otras Administraciones Públicas con competencia en la materia, Juzgados y Tribunales. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección del Ayuntamiento de Ondarroa, incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información: www.ondarroa.eus



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

III. ERANSKINA / ANEXO III

**NORK BERE BALORAZIOA EGITEKO FORMULARIOA / FORMULARIO DE AUTOVALORACIÓN**
**GARBIKETA OPERARIO KATEGORIA/CATEGORÍA OPERARIA-OPERARIO DE LIMPIEZA**

Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

| IFZ / NIF | Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social |
|---|---|
| | |

a – ESPERIENTZIA (Gehienez 30 puntu) / EXPERIENCIA (Máximo 30 puntos)

a.1 - Esperientzia orokorra (Gehienez 10 puntu) / Experiencia general (máximo 10 puntos)
Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak / Servicios prestados en cualquier Administración Pública

| | Egunak / Días | Puntu - Kopurua / Puntuación |
|---|---|---|
| Deialdiko eskala, azpieskala eta/edo kategoria berean, edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik **0,00548 puntu** lan egindako egun bakoitzeko, **10 puntu** gehienez/ Por servicios prestados en la misma escala, subescala y/o categoría que la convocada, en cualquier administración pública **0,00548 puntos** por día trabajado hasta un máximo de **10 puntos** | | |

a.2 - Esperientzia espezifikoa (Gehienez 20 puntu) / Experiencia específica (máximo 20 puntos)

Deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak / Servicios prestados en la Administración convocante

| | Egunak / Días | Puntu - Kopurua / Puntuación |
|---|---|---|
| Deialdia egin duen administrazioan deitutako eskala, azpieskala eta/edo kategoria berari atxikitako lanpostuak betetzeagatik **0,01096 puntu** lan egindako egun bakoitzeko, gehienez ere **20 puntu**. / Por el desempeño de puestos adscritos a la misma escala, subescala y/o categoría que la convocada, en la Administración convocante **0,01096 puntos** por día trabajado hasta un máximo de **20 puntos**. | | |

b – TITULAZIOAK ETA PROBAK (Gehienez 10 puntu) / TITULACIONES Y PRUEBAS (Máximo 10 puntos)

Gehienez ere 10 puntu emango dira honako merezimendu hauengatik / Se valorarán hasta un máximo de 10 puntos los siguientes méritos:

b.1 – Jasotako Prestakuntza (Gehienez 10 puntu) / Formación recibida (Max 10 puntos)

| | Orduak / Horas | Puntu - Kopurua / Puntuación |
|---|---|---|



Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eek: BAO-2022h248-(II-6214)

ONDARROAKO UDALA

| | | |
|---|---|---|
| Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten eta erakunde ofizialek emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik. **0,0167 puntu** harrera-ordu bakoitzeko, gehienez **10 puntu** / Por la cantidad de horas de recepción cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales. **0,0167 puntos** por cada hora de recepción hasta un máximo de**10 puntos**. | | |

Egotzi taula honetako a (esperientzia) eta b (Titulazioak eta probak) azpiataletako emaitzen batukaria eta lortutako azken puntuazioa.

Impute en este cuadro el sumatorio de resultados de los subapartados a (Experiencia) y b (Titulaciones y pruebas) y la puntuación final obtenida.

| | |
|---|---|
| a. ESPERIENTZIAREN PUNTUAZIO / PUNTUACIÓN EXPERIENCIA<br>Gehienez 30 puntu / (Máximo 30 puntos) | |
| b. TITULAZIOAK ETA PROBEN PUNTUAZIOA / PUNTUACIÓN TITULACIONES Y PRUEBAS<br>Gehienez 10 puntu / (Máximo 10 puntos) | |
| IZANGAIAREN GUZTIZKO PUNTUAZIOA / PUNTUACIÓN TOTAL DE LA PERSONA ASPIRANTE<br>(a + b) | |

Behean izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio erakundean sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la entidad convocante y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud

(Tokia/Lugar) (Urtea / Año) (Hilabetea / Mes)
(Eguna / Dia)

Sinadura / Firma

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 (EB) Erregelamendua. Arduraduna: Ondarroako Udala, Musika Plaza z/g, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. IFZ: P-4808600-C. Helburua: Hautaketa-prozesuaren kudeaketa. Hartzaileak: Giza Baliabide eta Idazkaritza sailak Eskubideak: Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo ukatzeko. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du toki-erakundearen helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiri bat erantsiz edo Korporazioaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiago nahi izanez gero:
www.ondarroa.eus

Información básica de tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679. Ayuntamiento de Ondarroa, Musika Plaza s/n, 48700 Ondarroa. Tlf: 94 683 3672. CIF: P-4808600-C Finalidad: Gestión del proceso selectivo. Destinatarios Departamentos de Recursos Humanos y Secretaría. Derechos: La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección de la entidad local incluyendo un documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible en la sede electrónica de la Corporación. Para más información:
www.ondarroa.eus

14


Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2022-12-22 10:24:21(UTC) Fecha: 22/12/2022 10:24:21 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA Data: 2022-12-22 11:05:22(UTC) Fecha: 22/12/2022 11:05:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fb0e1746-d942-474d-9388-35d7678bf4c8} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.



eek: BAO-2022h248-(II-6214)